

31. zenbakia / 2019ko abendua

Leitzako
aldizkaria

Marmari

-Leitzaldeko
berdintasun
zerbitzua

-Hemen dira
Sastrakak

-Leitza,
euskararen
arnasgune

-Leitzako
herri aretoa

-Leitza
iruditzen

-eta gehiago...

Arnasa hartuz,
herria landuz,
berdintasunaren bidean



zenbaki honetan



● 3. or. Aurkezpena

● - . or. Test-a:
Ezagutzen al duzu Leitza?

● -10. or. Leitzaldeko berdintasun zerbitzua

● 11-12. or. Hemen dira Sastrakak, glifosatoak ere akabatuko ez dituenak

● 13-1 . or. Leitza Irati Zabaletaren begietan

● 1 -19. or. Maldizioak, juramentuak eta biraoak Leitza euskaraz

● 20-21. or. Leitza Ekuaboley

● 22-2 . or. Leitza, euskararen arnagune

● 2 -2 . or. Leitza herri aretoa

● 2 or. Leitzaketa mahai-jokoak 20 urte



MARMARIren 31. zenbakia duzu eskuetan. 2000. urtean argitaratu genuen lehendabizikoa, heldu den urtean eginen ditu 20 urte, beraz. Zenbaki honetan aipatu ditugun gai batzuek orduko zenbakian ere tokia izan zezaketen, hizkera adierazkorraz esandakoez, esate baterako, edota TEST-ean egindako hainbat galderek.

Beste batzuek, berriz, erakusten digute herrian gauzak aldatuz joaten direla, eta errealitate berriak edo berrituak ditugula: herrira bizitzera etorri diren biztanle berriak, feminismotik eta ber-

dintasunaren alorrean sortutako eragileak, herri aretoa, *arnasgunea* bezalako kontzeptu berriak

Herriko errealitatearekin lotutako aldizkaria izaten saiatzen da Marmari, atzokoarekin bezala baita gaurkoarekin ere, noski. Eta oraingoan ere horretan saiatu gara: herriaz zer edo zer ikasten laguntzeko ariketatxo bat ekarri dugu, Leitzako berdintasun zerbitzuaren eta Sastraka talde feministaren berri eman dugu, Irati Zabaletaren argazkiak, Bittorio Lizarragak bertako hizkera adierazkorrari buruz egindako lanaren laburpe-

na, Equoboley-ari buruzko erreportajea, Arnasa Gara egitasmoaren eta arnaguneen inguruko argibideak, Leitzako Herri Aretoari buruzkoak eta, bukaeran, aldizkari honek bezalatsu 20 urte egin dituen Leitzaketa mahai-jokoari buruzko aipamena.

Horiek, beraz, zenbaki honetan zureganatu nahi izan ditugun gaiak, argibideak, azalpenak, ideiak eta edukiak. Herriaz dugun ikuspegia osatzeko eta aberastuko dutelakoan ekarri ditugu hona, jakin-mina piztu eta are gehiago ikasteko gogoia ere esnatuko duelakoan. On egin!

Ezagutzen al duzu Leitza?

Bai, zalantzarik gabe. Leitzarra zara, edo leitzar sentitzen zara, edo hemen bizi zara, edo maiz etortzen zara Berdin dio. Ziur gaude Leitza, gutxi asko, ezagutzen duzula, baino ziur gaude oraindik ere baduzula zer ikasia, eta badirela harrituko zaituzten jakin-garri berriak.

Galdetegi bat ekarri dugu Marmari aldizkarira, bi helbururekin: zure ezagutza neurtzeko ariketa entretenigarri bat eskaintzea alde batetik eta, bestetik, Leitzari buruzko ezagutza zabaltzea eta indartzea.

Horretarako, *Kale edo bale, Balike-bale!* lehiaketa arrakastatsuko lehendabiziko bi edizioetan egindako galdere-tako batzuk baliatu ditugu. 2014ko eta 2015eko edizioetan makina bat galdera sortu ziren, **A edo B** eta **Egia edo gezurra** izeneko probetarako. Lehiakideek bi erantzunen artean aukeratu behar zuten lehendabizikoan, *A edo B* ariketan, eta esandakoa egia edo gezurra ote zen asmatu behar zuten bigarrenean, *Egia edo gezurra* izenekoan.

Saioetan izan ziren ikusleek, isilean eta lehiatu gabe izan arren, parte hartu ahal izan zuten, eta galderari erantzun,

beren baitan. Saioan izan ez zirenek, ordea, ez dute horren guztiaren berririk izan, eta iruditu zaigu *Marmari*ren irakurle guztientzat ariketa atsegina eta aberasgarria izan daitekeela.

Denok zer edo zer ikasteko balioko duelakoan, eta, gainera, ongi pasatzen lagunduko digulakoan, honatx galderak eta, bukaeran, erantzunak.

2014. URTEKO A EDO B ARIKETA

1.- Nola esaten zaio Leitzako hizkeran ostadarrari?

- a) Erromako zubie.
- b) Ostrillike.

2.- Non zegoen garai batean Leitzako kartzela?

- a) Plazako frontisa dagoen tokian
- b) Udaletxeko beheko solairuan.

3.- Aresoarren Bandera kontakizunean azaltzen zen istilua non gertatu zen?

- a) Ibiurko zubian.
- b) Leitzako plazan.

4.- Zein da Leitzako esaera honen bukaera: "Letraduak badaki...?"

- a) Nik ere baneki .
- b) Probatuak hobeki .

5.- Petra Azpiroz leitzarra –Etxeberrikoa– izan zen Nafarroako ikastola bateko lehendabiziko irakaslea 1932an. Nongo ikastolaz ari gara?

- a) Iru eko ikastolaz.
- b) Lizarrako ikastolaz.

6.- Zein urtean gertatu zen Leitzako elurte handia?

- a) 1688an.
- b) 1888an.

7.- Zein da *Kakazelai* izenarekin ezagutzen den tokiaren izena?

- a) Intxaurreta.
- b) Inguruarte.

8.- Leitzako lurretan oso aspalditik bizi da jendea. Mendibileko trikuharria da aztarnarik zaharreneetakoa. Noizkoa da?

- a) Kristo aurreko 4000. urtekoa.
- b) Kristo ondorengo 200. urtekoa.

9.- Zein urtekoa da Leitzari buruzko lehen aipamen idatzi ezaguna?

- a) 1023koa.
- b) 1356koa.

10.- Koldo Zuazo hizkuntzalariaren euskalkien sailkapenean, non kokatzen da Leitzako hizkera?

- a) Erdialdeko euskalkian.
- b) Euskalki nafarran.

11.- Noiz asfaltatu ziren Leitzako herriko kaleak?

- a) 1920 inguruan.
- b) 1950 inguruan.



Ostrillike



Petra Azpiroz



Ezpatadantza

12.- Zenbat aldiz jotzen du suhiltzailleen sirenak sua mendian denean?

- a) Behin.
b) Bitan.

13.- Zein urtean banatu ziren Leitza eta Areso bi udalerritan?

- a) 1570.ean.
b) 1770.ean.

14.- Zein da esaera honen bukaera: "Otsoa aipatu...?"

- a) Otsoa agertu .
b) Ehiztaria agertu .

15.- Azken estatistika ofizialaren arabera, zenbat dira euskaldunak Leitza?

- a) Biztanleen % 78.
b) Biztanleen % 91.

16.- Herrigunetik kanpo, herriko bost auzoetan, zenbat baserri eta etxebizitza daude?

- a) 100 inguru.
b) 160 inguru.

17.- Noizkoa da Leitzako Forua?

- a) 1192koa.
b) 1434koa.

18.- Bi rock talde hauetako bat ez da Leitzakoa edo ez du Leitzako kiderik izan taldean. Zein?

- a) Ekaitza.
b) I or.

19.- XX. mendeko azken aldian Leitzako bertsolariak agertu dira berriz ere Nafarroako txapelketan. Horien aurretik, zein izan zen Nafarroako txapelketan parte hartutako bertsolari leitzarra?

a) Batixte Perurena.

b) Manuel Lasarte.

20.- Zer dira arrosnabarrak?

a) Bertsoak abesteko usadiozko erabat.

b) Mezako irteeran abesten ziren otoi-tzak.

21.- Leitza izan zen aurreneko ezpatadantzari taldeak zer bandera erabili zuen?

a) Leitzakoa.

b) Ikurrina.

22.- Nork eman zion Leitzako herriari armarrria?

a) Lopez Diaz de Haro Bilboko Jaunak.

b) Antso Azkarra Erregeak.

23.- Zein urtean abiatu zen Leitzako lehendabiziko ikastola?

a) 1933an.

b) 1967an.

24.- Zergatik jartzen du "Nor Jaungoikoa bezala" Leitzako banderan?

a) Esaldi hori Mikel izenaren itzulpena delako.

b) Leitzatik behin pasa zen Aita Santu batek izen hori jarri ziolako.

2014. URTEKO EGIA EDO GEZURRA ARIKETA

1.- Garagarrila hitzak maiatza esan nahi du.

a) Egia. b) Gezurra.

2.- UEMA izenak Udal Elebakarren Mugimendua esan nahi du.

a) Egia. b) Gezurra.

3.- Leitzak garai batean dorre bat izan zuen, 22 metroko altuerakoa.

a) Egia. b) Gezurra.

4.- Garai batean Leitzako ihauteriei *pesta ttikiak* deitu zitzaien.

a) Egia. b) Gezurra.

5.- Leitza haritza da ugariena den zuhaitza.

a) Egia. b) Gezurra.

6.- Jose Bizente Huarte San Martin, 1922an Txinako Wuhu hiriko Gortzain egin zutena, Malesakenekoa zen.

a) Egia. b) Gezurra.

7.- Karrape hitzaren etimologia edo jatorria "Karrerape" hitza da.

a) Egia. b) Gezurra.

8.- Leitzako kaleetan hainbat urtean egin diren neurketen arabera, kalean entzuten diren elkarrizketen % 50 euskaraz dira, eta gainerakoak erdaraz.

a) Egia. b) Gezurra.

9.- Leitzak 82 km²-ko azalera dauka.

a) Egia. b) Gezurra.

10.- Francoren garaian herriko jauntxoek eta erretoreak izendatzen zuten Leitzako Alkatea.

a) Egia. b) Gezurra.

11.- Plazaola trenbideak 1936an egin zuen azkeneko bidaia.

a) Egia. b) Gezurra.

12.- Ezpatadantza, jatorriz, Goierri aldekoa da.

a) Egia. b) Gezurra.

13.- Leitzako eskolako lehendabiziko euskarazko taldea 1976an sortu zen. Egia edo gezurra?

a) Egia. b) Gezurra.

14.- Erdi arotik hasita eta XVIII. mendera arte Leitzak gerra asko nozitu zituen. XIX. mendea, berriz, gerrarik gabeko aldi lasai samarra izan zen gurean.

a) Egia. b) Gezurra.

15.- Leitzako armarrarian pago bat eta otso bat agertzen dira.

a) Egia. b) Gezurra.

16.- Gorritzaran da, hedaduraz, Leitzako auzorik handiena.

a) Egia. b) Gezurra.

17.- SARRIOk 1976. urtean izan zuen plantillarik handiena. 1450 langile inguru zituen orduan.

a) Egia. b) Gezurra.

18.- Inazio Baleztenak, *Tiburcio de Okabio* ezizena zuenak, asmatu zuen "Uno de enero, dos de febrero..." letra ezaguna, Olentzoren doinua hartuta.

a) Egia. b) Gezurra.

19.- Leitzan euskara hizkuntza ofiziala da.

a) Egia. b) Gezurra.



20.- Garai batean Leitza eta inguruko zenbait herri Basaburua Nagusia izeneko bailara edo eskualde historiko batean biltzen ziren.

a) Egia. b) Gezurra.

21.- Urepel da Leitzako Mendirik altuena.

a) Egia. b) Gezurra.

22.- 1978. urtean jarri ziren euskarazko lehendabiziko iragarkiak Plazaola aldizkarian.

a) Egia. b) Gezurra.

23.- Ebarixto Elduaieen txistularia Plazaolako trenak harrapatuta hil zen.

a) Egia. b) Gezurra.

24.- Leitzak biztanle kopururik handiena 1985ean izan zuen.

a) Egia. b) Gezurra.

2015 URTEKO A EDO B ARIKETA

1.- Zer esan nahi du *Hankalepoka* hitzak?

a) Umea bizkarrean hartzeko era, bi oinak lepoaren alde banatatik bular aldera jarrita.

b) Liskarraldi batean kolpeak ezin asmatuz borrokan aritzeko ere xelebrea.

2.- Zer esan nahi du *Eundimundu* hitzak?

a) Sekulan, egundaino, inoiz.

b) Ikaragarri, guztiz, erabat.

3.- Zer adierazi nahi du *kunplikatillu* hitzak?

a) Umeak katiluan jarritako guztia jan duela.

b) Konplimendua adierazteko hitz informala da.

4.- Zer esan nahi du *txiripe* hitzak?

a) Pilota-jokoan, dejada edo akua izeneko jokaldia.

b) Pilota-jokoan, zorte handiz egindako jokaldia.

5.- Zer esan nahi du *astopastilla* hitzak?

a) Astoaren gorotz alea, itxura txapalekoa izaten baita.

b) Astoari iel egon ez dadin ematen zaion botika.

6.- Noiz sortu zen Leitzako Udalaren Euskara Zerbitzua?

a) 1990. urtean.

b) 2000. urtean.

7.- Esaerak hala dio: "Izena aundi...". Zein da esaeraren bigarren zatia?


a) Izana ttiki.

b) Izana ere hala bedi.

8.- Esaerak hala dio: "Arri-urte...". Zein da esaeraren bigarren zatia?

a) Zerri-urte"

b) Arto-urte



Leitzako eskola komarkala

- 9.- Zein da alde zaharreko zati bat hartzen duen kalearen izen ofiziala, Udalak hala onartuta?
a) Mikel Deuna.
b) Done Mikel.
- 10.- Aliñeko arbol jakin bati Enamoratua esaten zitzaien. Zer zuhaitz mota zen?
a) Lizarra.
b) Haritza.
- 11.- Noiz inauguratu zen Leitzako eliza?
a) 1467an.
b) 1771n.
- 12.- Noiz hasi ziren Leitzan herrian harrizko etxeak eraikitzen?
a) 1004an.
b) 1421ean.
- 13.- Zer ziren Leitzako foruak aipatzen zituen petxak?
a) Erregek leitzarrei aziendak libre bazkatzeko eman zien baimen berezi bat.
b) Erregeri ordaindu behar zitzaien zerga bat.
- 14.- Nola zuen izena 1936ko gerran Leitzan nafarrek nahiz gipuzkoarrek altxamenduaren alde borrokatzeko osatutako tertzioak?
a) Tercio de San Miguel.
b) Tercio de Navarra.
- 15.- Nork irabazi zituen 1936ko hauteskundeak Leitzan?
a) Eskuindarrek.
b) Abertzaleek.
- 16.- Zenbat kilometro daude Leitzatik Iruñera?
a) 48 km.
b) 58 km.
- 17.- Bi espezie hauetatik zein ez dugu Leitzan aurkituko?
a) Azkonarra.
b) Lepahoria.
- 18.- Noiz esaten da azaldu zela azkeneko aldiz otsoa Leitzan?
a) 1699an.
b) 1888an.
- 19.- Zein da Leitzako posta kodea?
a) 31880.
b) 31770.
- 20.- Noiz hasi zen Leitzan kontzentrazio eskolarra?
a) 1947an.
b) 1965ean.
- 21.- Nondik heldu da *Kolobal* izena?
a) Sarriopapel lantegian paretak estaltzeko egiten zen material baten izena zen: *colowall*.

- b) Sarriopapelek eskatuta Leitzan etxebizitza batzuk eraiki zituen enpresaren izena zen.
- 22.- Zertarako sortu ziren, batez ere, Leitzako burdinolak?
a) Eraikuntzarako.
b) Itsasontzigintzarako.
- 23.- Noiz sortu zen Aurrera kirol elkarteak?
a) 1930ean.
b) 1950ean.
- 24.- Zer elkarte mota zen 1990eko hamarkadan aritu zen Iraulian?
a) Gazte asanblada.
b) Euskara taldea.



Batxillergoko eraikina

2014 - A edo B. Erantzun zuzenak:
1.-b); 2.-b); 3.-a); 4.-b); 5.-b); 6.-b); 7.-b); 8.-a); 9.-a); 10.-a); 11.-b); 12.-a); 13.-b); 14.-a); 15.-b); 16.-b); 17.-a); 18.-a); 19.-a); 20.-a); 21.-b); 22.-a); 23.-b); 24.-a)

2014. Egia edo gezurra. Erantzun zuzenak eta argibide batzuk:
1.-b) Garagarria ekaina da; 2.-b) UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea da; 3.-a); 4.-a); 5.-b) pagoa da ugartena; 6.-b) Zortzikonekoa zen; 7.-a); 8.-b) 75 inguru da euskaraz entzuten dena; 9.-b) 58 km² ditu Leitzak; 10.-b) Gobernadore zibila izendatzen zuen; 11.-b) 1953an egin zuen; 12.-b) Jatorriz Durangaldekoa da; 13.-a); 14.-b) XIX. mendean ere izan ziren gertak gure inguru honetan; 15.-b) Haritza eta otsoa agertzen dira; 16.-a); 17.-a); 18.-a); 19.-a); 20.-b) Leiza Basaburua Txikia izeneko eskualde historikoa egon zen; 21.-b) Eguzkizko muintoa da altuena; 22.-a); 23.-a); 24.-a) 3.335 biztanle zituen orduan.

2015 - A edo B. Erantzun zuzenak eta argibideren bat:
1.-a); 2.-a); 3.-b); 4.-a); 5.-a); 6.-a); 7.-a); 8.-b); 9.-b); 10.-a); 11.-b); 12.-b); 13.-b); 14.-a); 15.-a) Eskuindarrek 393 boto lortu zituzten, abertzaleek 336 eta Frente Popularrak 21; 16.-a); 17.-b); 18.-b); 19.-a); 20.-b); 21.-a); 22.-b); 23.-b); 24.-a).



Leitzaldeko berdintasun zerbitzua

Badira urte batzuk Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean berdintasun zerbitzua abian jarri zela, zazpi urte zehatz-mehatz. Urte horietan zenbait berdintasun teknikari egon dira lanpostuan. Iazko azarotik, arrazoi desberdinak izan direla eta, zerbitzuaren egonkortasuna kolokan egon da uztailean berriro ere martxan hasi den arte. Orduan hasi nintzen eskualdeko berdintasun tekni-

kari lanean. Amaia Paz deitzen naiz eta Leitzako Udalean kokatua dagoen Gizarte Zerbitzuen bulegoan astean hirutan egoten naiz: astearteetan eta ostegunetan, eta hamabostean behin ostiraletan.

Zazpi urte hauetan desberdinak izan dira eskualdean egin diren lanketak. Batzuk agerikoak, beste asko ikusezina. Lanketa guzti hauek marko gisa Berdintasun Plana izan dute. Lehenengo Berdintasun Plana, hain zuzen ere, 2013.

urtean diseinatu zen, eskualdean emakumeen eta gizonen egoera zein zen zertu ondoren. Horretarako hiru lantalde sortu ziren: bana Leitza eta Areson, eta beste bat Goizueta eta Aranon. Lan talde horietan ateratako informazioarekin lau ildo nagusi zehaztu ziren: zeharkakotasuna, formakuntza, hezkidetzeta eta sentibilizazioa.

Gaur egun, bigarren Berdintasun Plana da martxan dagoena. Plan hori 2018an



Amaia Paz, berdintasun teknikaria

diseinatu zen, eta horretarako lehendabiziko planaren ebaluazio bat egin zen. Ondoren, Goizueta, Arano, Areso eta Leitzako politikari, teknikari eta eragileak elkarrizketatu ziren. Eta, azkenik, bi eztabaida talde egin ziren, eskualdeko politikari, teknikari, herri mugimenduko eragile eta enpresa arduradunek osatuta. Plan horren iraupena bost urtekoa izango da eta aurrera eramateko behar beharrezkoak dira, lehenengo planean izan ziren bezala, lantaldeak. Jatorriz hiru zirenak orain bi dira: talde bat Goizueta eta Arano herrietakoa eta beste bat Leitzeta eta Aresokoa. Talde horiek Berdintasun Batzordeak deitzen dira eta bertan ordezkari politikoek, teknikariek eta eragileek parte hartzeko aukera dute.

Marko parte-hartzaileak dira eta ekintzen koordinazioaz, gauzatzeaz eta ebaluazioaz arduratzen dira. Beharrezko tresna dira herrietako errealitateetara hurbiltzeko eta informazioa eremu desberdinetako pertsoneri helarazten laguntzeko.

Martxan dagoen Berdintasun Plana lau esku-hartze eremuetan banatzen da, jarraian azalduko ditugun lauak hain zuzen ere.

TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA

Esku-hartze eremu honek erakundeetan genero berdintasuna arlo guztietatik lantzeko estrategia zehazten du. Esku-hartze hori beharrezkoa da administrazioan aldaketak eragiteko eta diseinatzeko diren

politika, plan, proiektu eta programek, emakumeen eta gizonen egoeraren arteko ezberdintasunak kontuan hartuz, berdintasunaren aldeko urratsak eman ditzaten.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Esku hartze eremu honek emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko jarduerak biltzen ditu. Horien artean daude, besteak beste, genero indarkeria hobeki aztertzen lagunduko duten ikerlanak eta azterketak. Horiek guztiek aukera emango dute prebentzioa eta sentsibilizazioa modu egoki batean lantzeko eta emakumeen arretarako baliabideen koordinazioa hobetzeko.

ZAINZA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA EGINKIZUNEN BATERATZEA


Berdintasun Planaren barruan esku-hartze eremu honek bi ildo estrategiko zehazten ditu. Alde batetik, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea, zaintzaren etika garatuz (hau da, zaintza bizitzaren eta jendartearen antolaketaren erdigunean jarriaz), eta emakumeek eta gizonek lana, familia eta norberaren bizitza erantzunkidetasunez bateratzeko aukera sustatuz; eta, bestetik, denborak, espazioak eta zaintzak kudeatzeko eredu berriak sortuz.

Esku-hartze eremu honetan aipatzeakoa da 2017. urtean Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon kontziliazio ituna garatu zela eta bertan zenbait eragilek eta erakundeek zazpi puntuko kontziliazio deklarazioa sinatu zutela. Itun hori lana, familia eta bizitza pertsonala kontziliazteko eta erantzunkidetasunaren alde egiteko akordioa da. Itun horren proposamena da bizitza eta bizitzaren zaintza ekonomia eta jendarte antolaketaren ereduaren erdigunean kokatzea, bizitza izan dadin jendarte osoaren garapen ekonomiko eta soziala gidatzen duena, eta ez alderantziz.

Ildo beretik kokatu dezakegu Goizuetan eta Aranon aurrera eramanean den Buthantxo proiektua, Goizueta eta Aranoko biztanleen harremanak babestu eta estutzea helburu duena, adin ezberdinetako jendea elkartuz eta zaintzaren etika bera balioan jarriaz. Aipatu beharra dago proiektu horri Nafar Gobernuak Gizarte Zerbitzuen kalitatezko saria eman diola.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA BALIOEN ALDAKETA

Ahalduntzea prozesu bat da eta aldi berean tresna bat. Aldaketarako, transformaziorako eta kokapenerako tresna. Esku-hartze eremu honetan ahalduntzea emakumeen parte-hartze soziopolitiko sustatzeko tresna bezala aurreikusten da, betetzen dugun tokia zalantzan jartzetik



abiatzen dena, ondoren aldaketara eta transformaziora bideratzen gaituena, berriro ere kokatu ahal izateko. Eskualdeko emakumeek oro har duten egoera eta posizioa hobetzeko tresna dela esan daiteke. Hemen kokatu ditzakegu Prebentzio zerbitzuarekin elkarlanean sortu berri den 44-55 urte bitarteko emakume taldea eta iazko emakume baserritarren topaketei aurre eman zaien jarraipena.

Esku-hartze eremu honen bigarren ildo estrategikoa emakumeen eta gizo-

nen berdintasunaren balio soziala indartzea eta patriarkatuaren balio sozialak eraldatzea da, emakume eta gizonei esleitzen zaizkigun rol eta estereotipoak indargabetuz eta genero desberdintasunak iraunarazten ez dituzten ereduak sustatuz.

Labur azalduta, beraz, hori da 2023. urtera arte berdintasun zerbitzuetik martxan jarriko diren ekimenen marko orokorra.

Berdintasun zerbitzua



Hemen dira Sastrakak, glifosatoak ere akabatuko ez dituenak

“**N**eskato sastraka. Ori sastraka! . Gel-dirik egoten ez den neskaz esaten omen da gurean sastraka. Horrela dio Mikel Olanoren *Aio, Leitze!* hiztegiak. Mutikoei esateko ordaina, berri, bihurri omen da. Hitz egokia iruditu zitzaigun Leitzaldeko talde feminista berria izendatzeko: Sastrakak, neska bihurriak, geldirik egoten ez direnak. Hara, horixe gara gu! . Eta emakume ustez desegokiak izendatzeko erabilia izan bada, gainera, are gogotsuago (ber) hartuko dugu izen hori! Aurretik izan diren sastraka guzti horien omenez

Ekainaren 19an egin genuen Sastrakak talde feministaren aurkezpen eki-

taldi xumea Leitzako plazan. Urtebete lehenago abiatu genuen prozesu luzearen ondorio izan da taldearen sorrera, dena den: 2018ko ekainaren 19an lehen emakume* asanblada irekia egin genuen, eta deialdiak izandako erantzun ona ikusita, asanblada gehiagorekin aurrera egitea erabaki genuen. Baziren urte batzuk eskualdean mugimendu feministak talde antolatu eta finkorik ez zuela, eta asanbladetako partaide guztiak ikusten genuen hutsune hori betetzeko beharra. Eta gogorik ere ez zen falta! Horregatik, pixkanaka, pausoz pauso, asanbladaz asanblada, egun-go talde motorearen sorrera bultzatu

duen dinamika honi forma ematen joan gara.

Talde iraunkorra martxan, asanblada irekiekin jarraitzea da asmoa orain. Bata zein bestea mugimendu beraren bi aurpegi direlako eta bata bestearengandik elikatzen jarraitzeko beharra duelako. Eta Leitzaldeko taldea izanik ere, Euskal Herriko mugimendu feminista zabalaren parte gara gu ere: bertatik edaten dugu eta hari eginen diogu gure ekarpena, landa eremuko errealtatetik eta borroketatik abiatuta. Feminismoa indar handiz dabil herri eta bazterretan azken aldiak, gure bizitzak eta inguruak eraldatzen. Gu ere horretan



gabiltza: suertatzen denean hortzak erakutsiz, baina ahal den guztietan alaitasunetik, elkar zaintzatik eta gozamenetik eraginez.

Honezkerok askeak garela sinestarazi nahi izan digute, legearen aurrean eta jendartean parekidetasuna lortua dagoela, aukera berdina ditugula guztiok. Baina guk ez dugu ipuina irentsi: erasotak izaten jarraitzen dugu, erailak, gutxietsiak, isilduak, baztertuak eta guzti hori gure gorputzetan sentitzen eta

SASTRAKAK!

bizitzen jarraitzen dugu. Horregatik, borrokan eta dantzan jarraituko dugu jendarte aske, justu eta parekidea lortu arte!

SALDA BADAGO: EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI FEMINISTAK DURANGON

Feminismoaren bidean geltoki garrantzitsua izan dugu Durangon azaroaren 1, 2 eta 3an. 2007tik ospatzen ez ziren Euskal Herriko Jardunaldi Feministak antolatu ziren egun horietan, eta Euskal Herriko txoko guztietatik hurbildutako hiru mila feminista baino gehiago bildu ginen han. Ez da makala! Eta, noski Sastrakak ere hantxe izan ginen! Indarrez eta pozez gainezka itzuli bagara ere (eta asteburu intentsuaren ondoren nekatuta ere bai, zergatik uka), motxila etxeko lanez beteta ekarri dugu

Izan ere, hiru egunetan feminismoaren aurpegi eta ahots oso ezberdin eta anitzak ikusi eta entzuteko aukera izan dugu Durangon, eta jasaten ditugun zapalkuntzak aztertzeke ez ezik, norberaren pribilegioak mahai gainean jartzeko ere balio izan dute jardunaldiek. Ponentzia zentraletan planteatu ziren hainbat galderak gure buruan bueltaka jarraitzen dute: Aniztasuna aldarrikatu arren, zenbateraino dira anitzak gure espazio feministak? Eta zergatik? . Emakume migratu eta razializatuena mahai inguruan interpelatuak sentitu ginen feminista zuri asko: Batzuek pausu bat atzera eman beharra duzue beste zenbaitek aurrera egin ahal izateko, zioten Red de Mujeres Racializadas de EH taldeko feministek.

Zirikatuak sentituzetik eta deserosotasunetik ere zer ikasia badugula onartu behar. Prostituzioa, amatasuna, zaintza lanak, feminismoaren subjektu politikoa Eztatidarako hamaika gai, feminismoa ulertzeko hamaika ikuspegi, eta puntu komunak bilatzeko saiakera handi bat. Horixe izan da Durango. Eta horretan jarraituko dugu, salda soberan badagoela argi gelditu zaigulako!

Sastrakak

LEITZA

Irati Zabaletaren begietan

MARMARIren 31. zenbakiko atal honetarako Irati Zabaletari eskatu dizkiogu irudiak, baita berehala baiezkoa jaso ere. Kameraren bitartez herria nola ikusten dugun erakutsi nahi izaten dugu atal honetan, Leitzari begiratzeko mila modu egon baitaitezke. Oraingoan, beraz, Irati Zabaletaren begirada ekarri dugu, irudi ederren bitartez jaso, eta argazki oinetan Iratik berak idatzitako testu dotoreez lagunduta gainera.

Hautzaroan bizitutako uneak, hemen ikusi zein ikasitako guztia, bizitutako eta sentitutako guztia, hemen bizitzeko falta zaigun guztia



Zureak dira orbela, hostoen jauskera eta hego haizea



Elurretan jaio eta izotzetan bataiatu




Laket zait ibiltzea larre arteko estartetan barrena, ortzemuga gorrikaratzen hasia den orduan



Larruak, adarrak, lumak, iragan baten emaria etorkizuneko uharretan



Ene jabego bakarra



Iluntzeko desordu honetan, paisaia bakoitza, paisaia guztien ordezkari

Udari hasiera ematen dion festa, nekez etorri eta azkar joaten dena



Herriko kolorea: berdea



Larreetako belar berdeari, egunean zehar eguzkiak epeldutako harri urdinei eta baso haizearen zurrumurrua bezain nabarmenari begira



Gure baitan habia egiten duen harridura hauxe da, irauñ behar lukeen guztia eta hau, guzti hau da galduko dena



Ahotik ahora, arotik arora.
Lehen amona zen eta orain biloba

Maldizioak, juramentuak eta biraoak Leitzako euskaraz



“Euskarak ez dauka biraorik edo juramenturik. Askotan entzundako kontua da, eta garai batean ideia edo iritzi hori oso errotua eta zabaldua egon zen. Hizkera garbia zen euskara, purua, edo hala ikusi nahi izaten zuten batzuek. *Aitorren hizkuntza zaharra* kanta ezagunak ere hala zioen: txukun ta argia, biraorikan ez duen hizkuntza garbia.

Badakigu, ordea, hizkuntzak ez direla horrelakoak izaten eta hizkuntza guztiek, gureak ere bai, badituztela era guztietako sentimenduak, emozioak eta egoerak adierazteko moduak. Hori gabe hitzunari ez diote balio, eta etorkizun eskasa izanen dute.

Euskarak ere, horrenbestez, baditu maldizioak, juramentuak eta biraoak adierazteko bideak. Eta, euskararen barruan, Leitzako hizkerak ere badauzka. Bittorio Lizarraga leitzarrak hartu zuen bertako hizkeraren atal horren azterketa egiteko lana eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko 103. zenbakian artikulua argitaratu zuen, 2006. urtean, aberastasun hori jaso eta horren berri ederki asko eman zuena.

Lan mardula da, 65 orrialdekoa, eta irakurtzea merezi duena. Marmariren zenbaki honetara lan horretatik atera ditugun ideia, ondorio eta adibide batzuk

ekarri ditugu, ia-ia zipriztin gisa, aberastasun horren lagin gisa. Artikulu hau bera, nolahi ere, interesa pizteko eta iturri nagusira joateko gonbidapen bat ere bada. Han, besteak beste, adibide askoz ere gehiago aurkituko dituzu, hitz eta esapide horiek leitzarren ahotik entzundako esalditan txertatuak gainera, eta hitza edo esapideari bere tamaina hartzeko behar beste argibidez lagunduta.

ZENBAIT OHAR OROKOR

Bittorio Lizarragak bere lanean aipatzen dituen oharrak eta adibideak aipatu baino lehen guk ere gure ohar orokor propioa eginen dugu: hizkuntzak erabiltzeko dira, eskaintzen dizkiguten tresna eta baliabide guztiekin, eta eskura dazkagun bitarteko horiek hizkera biziagoa, eraginkorragoa eta indartsuagoa lortzeko balio digute. Hizkuntzak aldatu egiten dira, jakina, eta Leitzan erabili izan diren esamolde guztiek, edo Leitzan erabili izan diren birao edo maldizio guztiek, ez digute gaur egun berdina balio. Are gehiago, hitz eta esapide horietako batzuek, gaurko gure begietan behintzat, desegokiak gertatu daitezke

eta ez genituzke erabiliko atzean gordetzen duten esanahiarengatik, akats fisikotzat hartzen direnak iraintzeko aitzakiatzat hartzen direlako, kolektibo jakin batzuekiko mespretxuagatik, edo beste arrazoi batzuegatik. Bai jatorrizko artikuluan eta bai hemen egiten dena deskribaketa hutsa da, erabili den eta erabiltzen den hizkera baten deskribaketa alegia. Eztabaidatu liteke, jakina, egoera jakin batzuetan inor iraintzea edo biraoak botatzea egokia den edo justifikatuta dagoen, baina ez dugu eztabaida hori hemen eta orain eginen, gure asmoa beste bat baita.

Baina desegokitasunak desegokitasun, jasotako adibide horietako askok ziur asko bai, balioko ligukete, hainbat momentutan gure adierazi beharrak asetzeko. Adibide horiek, edo horien antzekoek, edo gaur eta aurrerantzean asma genitzakeenak. Kontua da, azken batean, hizkera adierazkor baten jabe izatea, esan nahi dugun guztia esan nahi dugun bezala esan ahal izateko.

Eta ohar orokor horiek eginda, ekar ditzagun gure artikulura Bittorioaren argibideak eta adibideak, ezinbestean oso-oso laburtuta:

ZENBAIT ARGIBIDE ETA ZENBAIT ADIBIDE

- Birao mota ezberdinak ditugu, eta birao horiek sailkatu egin daitezke: harridurazkoetatik abiatu eta jendea iraintzeko erabiltzen diren hitz eta esapideetaraino, halaxe azaltzen du Bittoriok berak.
- Gogortasunean ere maila ezberdinak daude: arin askoak badaude, tartean koka litezkeenak, eta baita gogorrak ere. Birao bera ere, testuinguruaren arabera, arinagoa edo gogorragoa izan liteke. Artikuluaren egileak honela azaltzen du: Birao mailak badirela aipatu dugu arestian, bai baitira arinak, tartekoak (erdi-mailakoak deituko ditugu) eta gogorrak. Alabaina, birao bera maila batetik bestera irago daiteke haserrearen eta barne-sentimenduaren arabera. *Au zerrie!* hau zerria! bizkarrean joaz eta barremurritza eginez esatea, eta *zerrie, ez beste zerrie!!*, hortzak es-tutuz, ukabila erakutsiz eta oihuka esatea, arrunt desberdina da. Ezin esanen dugu bada, bi esaldietan agertu den zerrri biraoak adiera bera duela: lehenbizikoa *au potroa!*-ren sinonimoa da; bigarrena, berriz, *putakume* edo *alu*-rena.
- Adina: itxuraz, gazteek irain eta birao gehiago erabiltzen dute helduek eta adinekoek baino, eta gogorragoak izaten dira gainera.
- Generoa: gizonzkoek erabili ohi dituzte biraorik zakarrenak, eta zenbat eta gorago joan adinean aldea gero eta nabarmenagoa izan ohi da.
- Euskara hizkuntza minorizatua izaki, nabari da eragin hori, eta irain bortitzak eta goreneko mailakoak gaztelaniaz esaten dira gurean ere.
- Irainak eta biraoak hiru azpi-sailetan bana daitezke a) euskararen jatorrizkoak eta aspaldian errotutakoak; b) maileguak; c) kalkoak. Honatx sail bakoitzeko adibide batzuk: a) Euskararen jatorrizkoak eta aspaldian errotutakoak:

Alporja, alu, arraio, ergel, ernegatu, ereta, kaskailu, kaske-toso, kaskurrio, madarikatu, memelo, milika, muker, tentel, tontoilo, tortoilo, tenker, txoro, zarpail, zepel, zipotz, zital, ziziriku, zontzoilo.

b) Maileguak:

Dios, (e)rredios, mekaben dios (labirjen, laputa...) eta makaben guziak, ko (e/o), kristo, joder, jolin, komoaidios, laostia, laostia, laputa, kabron, marikon, joputa, txulo, ministro, obispo, beleno, latoso, enbustero/a, bulloso, ma oso, bandido, putanero, matxorra, tipo, miserable, traidore, tonto, kalamidade.

b) Kalkoak.

Kalko osoak: *Izorrai, izorra daitzela, kakitzat, epurgarbitzalle, gaizkiesana, gaizkiyayo, gaizkiazi, lotsagabe, sugedorri, gaizkipentsatu, yendaje, marimutil, gaizkiesana, eskertzarreko.*

Kalko partzialak: *Izorrai la patria, jodiai, putakume, seitzak porkulo artzea, porkulo artzak.*

- Irainak eta biraoak osatzeko sarritan metaforaren bidetik jotzen da, eta horretarako hainbat elementu erabiltzen da:
 - Gorputz atalak: *tripa(ustel), gibel(handi)*; animalia izenak: *zerrri, zozo, betizu*; landare izenak: *azaburu, babalore*; gorputz isuri eta hondakinak: *kaka(zu), zoldazu*; lanabesak eta ontziak: *kaiku, ziri(punta)*; pertsonaiak eta izen bereziak: *Judas, ministro*; talde etnikoak: *turko, moro*; naturaren egoera txarra, gaitzak: *adingabe, zeken*; mota guztietako izakiak: *gorotz, odolki*
 - Gramatikak ematen dituen baliabideak ere erabiltzen dira:
 - Elkarketa: *txoriburu, eltzeautdi, ankoker, bazternastalle, gosepasatu, zerriturdea, dirugose, aundiputz, txoroaize, ezinbizi, erdipizti*; afijazioa:



basapizti, setoso, zurrutero, espantus, ergeltzio

- Irainek edo biraoek duten indarrari eusteko bide bat indargarriak izaten dira:
 - Oso ongi ahoskatzea, izenondoak eranstea: *alu aundie, zerrri ziki e*; elkarketak: *zittalernegatue*; adiera errepikatzea: *ollobustie ezbestea!*; konparazioak: *ue kabrona eta ue bezi kabrona au*
 - Harridura eta haserre adierazten duten hitzak eta esapideak ere erabiltzen dira hizkera adierazkorrean: *arraio, alajainkoa, dedios, Kristo, laostia, izorrai, astoan bioli e, zakurren putze, kauen/kaben, kakazarra, kakitzat, ko e*
 - Norbait modu txarrean bidaltzeko ere Leitzako euskarak baditu bere moduak: *ospa, anka, uxe, segi, alde*
 - Besteren izaera txarretsi nahi baldin badugu, berriz, hitz eta esapide jakin batzuk eskaintzen dizkigu Leitzako hizkera adierazkorrak:
 - Harrokeria salatzen: *aize, aizetsu, arro, arroska, andinai, aizeputz, arraundioso, fanfarron, poteoso, us-teoso*



- Izaera arina adierazteko: *arin, kaskarin, txoriburu, txantzarri*
- Egonarririk eza: *epurtarin, ziziriku, epurdantzari* ;
- Izaera ero antza duenez esateko: *ero, txoro, txoroaize, astapito, ziri-buztan*
- Bihurriari: *aluita, eroska, errekitolis, marisastraka, sastraka*
- Patxada handikoaz ari garenean: *potroaundi, gibelaundi, potroso, motzaundi, Orantzaro, ministro, obispo*
- Berekoiei: *eoskor, kaskallu, kasketoso, tenker, mallu, temoso, okerkondo*
- Izaera basa dutenez: *astakirten, azinda, zakartzio*
- Pertsona izuti edo ilunari: *betizu, muker, zomorro*.
- Inozoari: *gaixo, gizajo/gizaxo*
- Inozokeria ezaugarri dutenei: *adinalgabe, azalore, babalore, otsoporru, ontoa, ganbelu, memelo, tentel zontzollo, ontzarmario, zozo*
- Izaera gaiztoa duteneni buruz ari garenean: *alu, barrengaixto, beleno, zittal*
- Aldarte txarrekoak: *ernegatu, erre-*

txin, kizkali, kopetabeltz, purrustioso, zipotz...

- Sesiozaleari: *kakanastalle, saltsero, sesioille, okasiente, tentapatxi-ku*

- Fiatzekoa ez dena: *faltso, judas, gezurtioso, kuku, zakur, ollo, ustel, zuri*

- Hitz jario handikoa: *berritsu, erta, karraka, zintzarri, kalaska, tartarra, latoso*

- Mintzaira gaiztokoari: *enbustero, eamanekarri, gaizkiesana, mingainari e, kanpoeder, kontakatillu, kuzkuzero, mizto*

- Hizketa iskanbilatsukoa denari: *argudios, batalles, bulloso, espantus, marrus, zalapartoso*

- Biziosoari: *gartxu; ma oso, ma ontzi, milike*

- Asezina: *begigose, begiluze, gosepasatu, tripazai*

- Diruzaleari: *arrapaola, dirugose, ezinbizi, leor, murriz, zimur, xur*

- Motela denari: *bare, bare motel, belaka, gatzikabea, geldo, moteltzio, zerbela*

- Lanarekin zerikusia dutenak adierazteko: *alpergorotz, gorotz, lanberri, lanpuxkar, alporja*

- Agintzeko joera: *marimaestra, marisarjenta*

- Lapurrari: *axeri, bostortzelaria, eskuluze, eskuzikin*

- Sexuari erreferentzia eginez: *buztanbero, gainkelari, marimutil, ziztor*

- Mozkorrari: *mozkortzio, zambro, zurrutero*

- Lotsagabekeria ezaugarri dutenei: *lotsabe, lotsamangarri*

- Bekaizkeria adierazteko: *ezinsofrittu*

- Irudipen txarrekoa: *fiakaitz, gaizkipentsatu*

- Arte edo trebetasun handirik ez duenez, ibilera torpekoa denaz: *aldrebes, baldar, zaldartzio*

- Utzikeria ezaugarri dutenei: *zabarra, abarra, ziki e*

- Berezitasun nabarmeneko gizase-meari: *potro, tipo*

• Akats fisikoak nabarmentzea ere iraintzeko modu bat izan da, eta horretarako ere baliabide ugari erabili ditu Leitzako hizkera adierazkorrak:

- Mehetasunarekin eta ahultasunarekin jokaten duten hitz eta esapideak: (*ez dakit zer baino*) *meyagoa, txotxa, zirie, epurtierra, ankamei, bakallo, makal, mengel, zozomiko*

- Txikitasunarekin lotutakoak: *ale, gatzpotto, kattakume, a o, ankamotoza, zato, kiliportto, muxarro, xa(b) or*

- Gizentasunarekin jokatu: *basittu, enbor, puske, fardel, zakuto, tripazaku*

- Beste akats fisiko batzuk baliatuta: *ajetu, exkel, kankallu*

• Itxurari dagozkion akatsak ere erabili eta erabiltzen dira: *mostra, kimazu, zoldazu, marizikin, politerrutti, zirpil*

• Mezprezu hutsa adierazteko erabiltzen direnetako batzuk: *agure, atso, epurtzikin ipurdizikin, kakazu, lerdezu, makarzu, mukizu, muturtzikin, zorri- zu, mixerablea, yendaje, kalamidade, ezeza, katubusti, ollobusti, kirten*

• Gorrotoa eta amorrazioa adierazi beharra ere sentitzen da askotan, eta horretarako bide hauek erabili ditu leitzarrak, besteak beste: *gaizkiyayo, eskertzarreko, erkittu, kadentzerrikume, kebratu, madarikatu, nazkante, sasiko, zerrie*

• Azkenik, gaur egun ia erabiltzen ez diren batzuk ere badaude, Azpirotzen artikulutik Bittoriok jasoak: *irispohe, sakats, txoatil, utike*.

Horraino Bittorio Lizarragaren lan deskriptibo horren nolabaiteko laburpena. Gure gomendioa, hasieran esan dugun bezala, artikulua osorik irakurtzea da, adibide guztiak eta horien tesuingurua ikusi ahal izateko. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko 103. zenbakian argitaratu zen, sarean ere aisa eskuratzeko moduan dago.



Leitzako Ekuaboley

Kiroi honen sorreraren inguruko azalpen garbirik ez badago ere, bada-kigu Ekuadorren sortua eta boleibolaren aldaera bat dela. Olinpiar jokoa den boleiboletik heldu da, hain zuzen ere. Quiton lehenengo soldaduen arteko lehenengo olimpiadak 1949an jokatu baziren ere, datuen ariora badirudi kirol honen jaiotzaren aztarnak Quito hirian aurkitu daitezkeela, 1938-1940 inguruan. Gaur egun, kirol honen ospea eta garrantzia Ekuadorko hiriburuan froga daiteke. Quitoko Chimbacalle estadioa da gaur egun kirol honen inguruko txapelketa garrantzitsuenak ospatzen diren lekua.

Sare bat eta pilota bat eskuratuz gero edozein lekutan jokatzetik badagoela dio Alfonsok, taldeko zaharrenak. 55 urte

ditu, umetatik 25 urte bitarte Quiton bizi-tua, eta berak dioenez bere oroitzapenean beti jokatu da edozein auzo edo bazterretan. Willianek, bestalde, azaldu digu arratsaldero Quitoko estadioan ehunka jokalaria elkartzen direla. Badakite ez dela indigenek sortutako kirola, baina beren herrietan ikasi zuten eta beren jolasteko ohitura hori ekuadortar talde bat dagoen munduko edozein lekutara ekarri dute.

Leitzan duela 16 bat urte hasi ziren, Inguruarten; gero Institutu aurreko zelaitikian aritzen ziren, eta gaur egun eskola aurreko zelai handian jokatzen dute. Willian, Ricardo eta Alfonso izan ziren Boly jokoarekin jarraitzeko ahalgin handiena egin zutenak.

Eguraldiak laguntzen duenean, eta bereziki eskola garaian, arratsaldero bitzeko aitzakia ederra dutela diote. Elkartu eta gorputza mugituz lan ondoreko entretenimendu bihurtu dute.

Jokorako garrantzitsuenaren sarea da (Ekuadortik Ricardok ekarria). 2,85 metrora behar du. Horretaz gain Ricardok berak burdinekin egindako armazoa behar da, sarea lotu ahal izateko, jokalakua 9 x 9ko bi koadroekin markatu, eta larruzko micasa baloiarekin jokoan hasteko materiala prest.

Hirunako bi ekipo osatu behar dira sarearen alde banatan, eta hirukotean bakoitzak bere eginkizuna du. Colador izenekoa da koadroaren aurrealdean jarri eta kolpe erabakigarrien bitartez pun-



tua lortzen saiatuko dena. Servidor , berriz, tantoa egin behar dionari baloia aireratzan saiatuko dena da. Eta volador deritzonak koadroaren atzealdea zaintzen du, baloiak lurra jo ez dezan.

Partida 12 tantora jokatzen da eta berdintzera iristen badira 15eraino ere luza daiteke.

Honen guztiaren kontrola beren artean izendatutako epaile batek eginen du, aldiro sakea zeinen esku dagoen adieraziz eta partidako tantoen kontrola eramanez

Argitasunak eta eguraldiak asko baldintzatzen du boleian jokatzeak aukera. Kanpoan jokatzen dutenez, neguan arratsaldeko 5ak inguru elkartzen dira eta udan 7ak aldera. Oso gustura daude gaur egungo lekuarekin baina esan beharra dago duela urte inguru argiaren kutxarekin arazoak izan zirela eta geroztik ez duela funtzionatzen. Argirik gabe daude eta konpontzea nahiko lukete.

Batzuetan Beasain, Iru eta inguruko herrietako lagunak etortzen dira Leitza eta uste dute herriko askok ezagutzen dutela beraien jokoa, begira ere egoten omen dira batzuk. Afizionatu hutsatzat dute beren burua. Herrian txapelketaren bat-edo antolatzea noizbait pentsatu ote duten galdetu zaizkenez, ez dute beren burua behar adina prestatua ikusten, ez dute uste kirol maila ona dutenik. Halere, Urte Zahar egunean festa berezia egiten dutenez, urte askotan antolatu dituzte beren arteko txapelketak Leitza; izan ere, egun horretan jende asko etortzen omen da kanpotik eta aukera aprobeztatzen omen dute.

Bakarrik gizonak jokatzen ote duten galdetuz, ezetz erantzun dute, badirela emakumeak ere jokatzen duten leku asko, baina badirudi Leitza emakume ekuadortarren artean ez dela momentuz inor animatu.

Edozeinek parte hartu lezake jokonetan, baina partidako 10 euro jartzen denez, horrek parte-hartzea baldintzatzen du. Garesti xamarra dela esatean, diru aldetik berdintsu geratzen zarela diote: kontuan hartuta egunean partida bat dela, askotan luzatu egiten dela, irabazleak txandatzat direla azkenean batz beste dirurik apenas galtzen dutela diote. Taberna gehiago gastatuko omen lukete. Beraiek egiten omen dituzte inguruko apustu ttikienak. Jokoa beti horrela ezagutu dutela diote, diru jokoak emozio pixka bat ere ematen diola partidari gainera. Epaileak ere 3 bat euro kobratzen ditu bere lanagatik.

Horiek dira, horrenbestez, joko honen inguruan ohiko jokalarien partetik jaso ditugun argibideak. Interesa duena, edo gehiago jakin edo ikasi nahi duena, jokoa bera ikustera joan daiteke eta, jakina, protagonistei ere zuzenean galdetu. **Gizarteratze programako teknikaria**



Leitza,

euskararen arnasmune

Arnasa Gara egitasmoaren aurkezpena Leitzan

Leitza herri euskalduna dela nahikoa bistakoa da edonorentzat. Euskara da bertako hizkuntza nagusia. Ez da entzuten den bakarra, noski, baina bai Leitza herriarren artean gehien entzuten dena. Horren kontzientzia badu hemen bizi den orok.

Baina Leitza euskararentzat arnasmune bat dela esatea agian pixka bat gehiago esatea da. Herritarren artean horren kontzientzia agian ez da hain argia. Leitza herriarrek arnasa hartzen duela, arnasa ematen diola euskarari

Hitz potoloak dira horiek, baina, gure ustez behintzat, egia ere badira.

Eta euskararen ARNASGUNE hitzak, hain zuzen ere, hori esan nahi du. Euskarak hemen arnasa hartzen duela, arnasmuneak hizkuntzari arnasa ematen diola. Eta Leitza arnasmune horietako bat da, eta horrek badu garrantzia, ez da nolana hiko kontua.

Horrexegatik, kontu garrantzitsua delako, eman diogu tarte bat MARMARI aldizkarian ideia honi. UEMA bera, Udalerri Euskaldunen

Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Iparraldeko Euskararen erakundearekin batera, ARNAGA GARA izeneko egitasmoa gauzatzen ari da azken hilabete hauetan, eta horren barruan sartzen da azaroaren 16an Leitza bertan egin zen ekitaldia. Asmoa berdina da: arnasmuneetan bizi diren herritarrei arnasmuneen ideia zein den azaltzea, horren garrantzia azpimarratzea eta, modako bihurtu den hitz hori erabilia, herritarrek ahaldundzea.



Horiek esanda, goazen ideia eta konzeptu hauen inguruko argibide eta zertzelada batzuk ematera.

ARNASGUNEAK. ZER DIRA?

Ez dago formula edo definizio erabateko edo matematiko bat arnasmuneak zer diren esateko, baina normalean euskararen ezagutza eta erabilera % 80 ingurukoa duten herriak sartzen dira multzo horretan. Ez da nahikoa herritar gehien-gehienek euskaraz jakitea, erabilera ere oso altua izan behar du. Sarreran esan dugun moduan, eta aipatu dugun egitasmoaren izenak berak gogorarazten duenez, herriok eta herriotako bizilagunok arnasa gara euskararentzat, hemen gure hizkuntzak arnasa hartzen du, hemen gure hizkuntzari arnasa ematen diogu.



Lehen hizkuntza

Arnasmuneetan, eta Leitzan ere hala da, bizilagun gehienek etxean ikasi dute euskara, eta erabat naturala izaten da euskara eguneroko bizitzako espazio guztietan erabiltzea. Badira ere, jakina, euskara etxetik jaso ez dutenak, baina horiek ere askotan euskaraz irabazi egiten ditu eta euskara naturaltasun berdinarekin erabiltzera irits daitezke.

Euskararen transmisioa

Herri hauetan, arnasmuneetan, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu da, gurasoek seme-alabei eman diete. Hizkuntza bizia da, eguneroko erabilera

horretan berritzen dena, eta horri esker egokitu ere egiten da, garai eta ohitura berrietarako prestatuz.

Hauskortasuna

Arnasmuneak ezinbestekoak dira euskararentzat, esan bezala, baina aldi berean, besteak beste normalean txiki samarrak izaten direlako, nahikoa hauskorak ere badira. Alegia, aldaketen aurrean ohi baino sentikorragoak dira, eta erraza da aldaketa sozioekonomikoaren eragina bertan handia izatea. Hala gertatu da azkeneko hamarkadetan, eta herri euskaldun ugari asko nabaritu du eragin hori.

ARNASGUNEETAKO HERRITARREKIN ATERATAKO ONDORIO BATZUK

2018. urtean UEMAk, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak egitasmoa abian jarri zutenean, zenbait arnasmunetako herritarrekin gogoeta prozesu bat egin zen, eta bertan zenbait ondorio atera ziren. Horietako batzuk aipatuko ditugu, gogoetaren ondoren egindako txostenean hitzez hitz jasotako moduan:

- Arnasmuneetan herritarrak euskaraz bizi daitezke naturaltasun osoz, aukera naturala edo erronka izan.
- Herritar askok ez du baloratzen bere herriko hizkuntza-errealitatea eta euskararen egoerari dagokionez, inguruko herrien errealitatea hobea dela uste dute, euren herriek euskararen erabilera maila altua duten arren.
- Euskal Herriko eremu gehienekin alderatuta egoera hobea dela aitortzen badute ere, euskararen erabileran gainbehera sumatzen dute beren herrietan.
- Lan-eremuari dagokionez, gehienek kezka adierazi dute euren lantokietan gaztelarak duen presentzia altuagatik.
- Parte-hartzaile gehienek lagun-eremuan euskaraz egiten dute. Erdaldunen bat badago gaztelarera salto egi-



Arnasa Gara egitasmoaren aurkezpena Goizuetan

ten dutela aipatzen dute. Gazteenak izan dira jarrera hori mantentzen dutela adierazi dutenak.

- Kezka nabarmena agertu da haur eta gaztetxoek euskararen erabileraren inguruan. Guztien pertzepzioa da haurrek geroz eta gehiago egiten dutela gazteleraz.
- Merkataritza- zein ostalaritza- eremuan hizkuntza nagusia euskara dela nabarmentzen dute, nahiz eta paisaian ez dela horrela aipatzen duten (tabernetan telebista gazteleraz).
- Herritik ateratzean euskarari eusten dioten gehienak gazteenak dira, edota ariketa kontziente bat egiten dutenak. Gainontzeko askok, aurreiritziengatik edo ohitura faltagatik, gaztelerara jotzen dutela aitortzen dute.
- Beren ingurua euskalduntzeko izan duten gaitasunak oso harro sentiarazten ditu hainbat parte-hartzaile. Batez ere herritik kanpo gertatzen diren komunikazio harremanetan.

Horraingo ondorioetako batzuk. Ez dira herri jakin bateko ondorioak, Leitzakoak edo Zumaiakoak esate baterako, baizik eta zenbait herritan egindako prozesutik ateratakoak. Batzuk Leitza-rako ere balioko dute, beste batzuk akaso ez, baina arnaguneen inguruko ideia orokor bat ematen dute.

ARNASGUNEEN GARRANTZIA

Arnaguneak, sarreran ere azpimarratu dugu, oso garrantzitsuak dira euskararen normalizazioan eta biziberritzean. Garrantzitsuak baino gehiago, ziur asko, ezinbestekoak direla ere esan genezake. Eta zergatik dira, bada, hain garrantzitsuak? Badaude arrazoi batzuk:

- Hizkuntza guztiek bezala, euskarak ere bere lurralde propioa behar du, nagusi izanen den lurruna edo espazioa, euskarak bizitasun osoa izanen duen tokia. Hori dira arnaguneak, besteak beste. Gune hauetan dauka bermatua euskarak bizitasun handi

hori, noizbait bizitasun hori beste eremu batzuetara zabaltzeko itxaropenarekin, noski. Arnasa hartzearen ideia hori honekin guztiarekin lotuta dago.

- Arnaguneak, eta arnaguneetan bizi diren herritarrak, eredu dira euskararen normalizazioan. Bertan euskaraz bizi daitekeela frogatzen ari dira, eta eguneroko bizitzako eremu guztietan euskaraz normaltasunez egin daitekeela. Erreferentzia bat dira, horrenbestez, normalizazioaren bidean hasi berri direnentzat edo atzerago dabiltzanentzat.
- Euskara bizi-bizirik dagoen herrietan euskaraz egitea ohikoa da, hori da arau soziala, ahozko harremanetan batez ere. Erabilera intentsu horri esker euskarak molde berriak sortzen ditu, eta biziberritu ere egiten da, garai berrietarako egokituz.
- Arnaguneetako herritarrek gainerako euskaldunekin ere harremanak izaten dituzte, eta askotan euskararen

erabilera handitzeko eta indartzeko akuilu izaten dira, euskara noranahi eraman eta hedatzen dutelako, eta bertako erabilera normal eta naturala garraiatzen dutelako.

ARNASA GARA

Egitasmoaren izena Arnasa Gara da. Arnasa hitz garrantzitsua da esaldi horretan, jakina, baina baita Gara hitza ere. Izan ere, denok gara honen parte, hitzun guztiok gara arnasmuneen parte, eta denok egin dezakegu zer edo zer euskarak arnasa hartzen jarrai dezan: euskara erabili, hain zuzen ere, han eta hemen, gaur eta bihar.

Leitzako Udala

Kartzela serie digitala

UEMAk eta kanpainaren sustatzaileek Durangoko Azokan aurkeztu zuten KARTZELA serie digitala. Arnasmuneak eta udalerrri euskaldunak euskararentzat zein garrantzitsuak diren nabarmendu nahi duen kanpainaren baitan sortu dute Kartzela, mezua euskal herritar guztiengana helarazi nahian.

BEC-en harrapatuta geratu diren sei euskal herritarren istorioa du ardatz Kartzela fikziozko lanak. Hiru Dama txo ekoiztetxeak ekoitzi du seriea, EITBekin elkarlanean. Zazpi ataleko lana da, eta abenduan aurkeztu da EITBren Nahieran plataforma digitalean eta www.kartzela.eus webgunean. BECen harrapatuta dauden sei lagun dira istorioaren protagonistak, arnasmuneetako herritarrak dira guztiak. BECeko zenbait tokitan harrapatuta gelditu ondoren, pixkanaka topo egingo dute elkarrekin, eta eraikinetik nola atera pentsatzen hasiko dira. Horre-



Arnasa Gara egitasmoa Kartzela webserieko aktoreak

Argazkia
arnasagara.eus

tan ari direla sortuko dira lehen galderak: zenbat egunez iraun beharko dute BEC barruan? Nola moldatuko dira hain izaera desberdina duten sei pertsona elkar ulertzeko? Kasualitatea izan ote da ala beraiek hor egoteko ezkutuko arrazoiren bat dago?


Erika Olaizola, June ; Ainhoa Etxebarria, Garazi ; Iratxe Urkiaga, Mara ; Juanen Saralegi, Juan ; Sambou Diaby, Iba eta Amaïur Epher, Ekhi dira Kartzela serie digitaleko protagonistak. Arnasmuneetako herritarrak dira guztiak: Azpeitia, Ondarroa, Lekeitio, Lesaka, Zumaia eta Donibane Garazi, hurrenez hurren, eta tokian tokiko euskalkian aritzen dira.

Arnasa Gara kanpainarentzat egindako parte-hartze prozesuan ateratako ondorioetan oinarritzen da gidoia. Arnasmuneen garrantzia nabarmendu nahi duen kanpainaren helburuak ez ezik, iruditegi kolektiboa aldatzea eta erreferenteak sortzea ere hartu du helburutzat

serie digitalak. Honako gai hauek lantzen ditu:

- Adinekoek gazteekiko dituzten aurreiritziak
- Euskara eta euskal kultura, berezkoa duen neurrian, bereziki baloratzen ez duen gaztea VS jarrera kontzientekoak
- Beste jatorri bateko herritarrekin dauden aurreiritziak. Haiek bizi dituzten egoerak, integrazioarentzat oztopo direnak.
- Arnasmuneetako herritarrek besteak euskaraz hitz egiten jartzeko duten gaitasuna.
- Ulertuko ez dutelakoan, euskalkia batura hurbiltzeko joera.
- Hitanoaren erabilera eta generoa.
- Pertsonaiei dagokienez, aurre egiten diete aurreiritzietan: arnasmuneetakoak dira, baina askotarikoak, eta horrek argazki aberats bat ematen du, topikoak hautsiz.

Iturria: www.uema.eus



Zine zaharretik Leitzako herri aretora

ZINEAREN SORRERA

Leitzako zinea herri ekimenetik sortutako proiektu bat izan zen. 1956 urtera arte eliza-ganbarako zati bat erabiltzen zen kultura sorkuntza eta emanaldietarako. Herritar batzuek, lokal hori herriko beharrei erantzuteko nahikoa ez zela eta, Udalari eskaera egin zioten zine bat eraikitze eta ardura beraren gain har zezan.

Urte horretako otsailean bertan egin zen batzar batean, Udalak proiektua onartu eta zinea eraikitze kudeaketei bide eman zien. 1957an onartu zen aurrekontu berezi bat zinearen eraikuntza aurrera eramateko (lurraren erosketak eta obrak egiteko). 1964an berriz ere obrak egin ziren, eraikina handitzeko. Orduan parrokiak zinearen eskriturak egin zituen eta zinearen eraikina bere izenean jarri zuen.

1988. urtean, Leitzako Udalak berriz erosi zuen zinearen eraikina eta hobe-

kuntzako inbertsioak egin zituen bertan. Eserlekuak aldatu eta Iturrama zinematik ekarritako bigarren eskuko butaka urdinak jarri ziren (oilategian eserleku zaharrak mantendu ziren), eta proiektore berri bat jarri zen.

Herriak, beraz, bi aldiz ordaindu behar izan zuen eraikina, ez alferrik ordea.

ZINE ZAHARRAREN ERABILERA

Zine zaharrean eskainitako kultur ekin-tzak ugariak izan dira: bertso saioak, antzezlanak, kontzertuak, lehiaketak, langile batzarrak. Eta noski, film emanaldiak.

Puntu honetara iritsita, ezin utzi aipatu gabe Maria Uriarte eta Juan Luis Aranburu. Urte askoan, hutsik egin gabe, filmak proiektatzeko ardura hartu baitzuten. Artisau-lana zen egiten zutena. Dakigun moduan, zine zaharrean ez zegoen proiektore digitalik, eta filmak

bobinetan iristen ziren: ohiko iraupene-koak sei edo zazpi bobinatan, eta film luzeak bederatzitan. Filmak eskuz muntatu behar izaten ziren, eta proiektzio gelaren ondoko gelaxka batean, tailer moduko batean, majina bat ordu sartu zituzten prestaketa lan horietan.

Apiriletik azaroa bitarte eskaintzen zituzten film emanaldiak eta modu horretan emandako azkena 2016ko azaroaren 13an eman zen, *M s all de las montañas* izenekoa. Publikoarentzat, nolahi ere, zine zaharreko atek azken aldiz 2018ko pestetan zabaldu ziren, abuztuaren 13ko bertso saioan, hain zuzen ere. Bertan, Maialen Lujanbio, Julio Soto edota Illarregi senideak aritu ziren, besteak beste.

ZINE ZAHARRAREN GABEZIAK

Urteen poderioz, zinea zahartu eta gain-beheran erori zen nabarmen.

Azken urteetan eraikinak gabezia larriak zituen eta lege-urraketa egoeran zegoen: suteen babeserako eta larrialdietarako neurriak ez zituen betetzen, irisgarritasun gabezia nabarmenak zituen, teilatuaren egoera kaxkarrarengatik itogin haundiak zeuden, isolamendu txarra, ekipamendua zaharkitua geratu zen eta ia ezinezkoa suertatzen zen garaiko filmak eta ikuskizunak eskaintzea

Guzti hori zela eta, eraikinak ez zuen (eta ezin zuen izan) jarduera baimenik, bertan hainbat ekitaldi antolatzen baziren ere. Zorionez, inoiz ez zen ezbehar larriarik gertatu, baina argi dagoena da eraikinak ez zituela gutxieneko baldintzak betetzen, eta arrisku hori ekidin beharra zegoela.

60 URTE GEROAGO, EKIMEN BERRI BAT

Herritar talde batek zinea egiteko eskaera egin zuenetik 60 urte igaro ondoren, Leitzako Udalak, herriko eragile eta jendartearen ufadaz lagundurik, proiektu berri bati ekin zion.

Izan ere, 2016. urtean, Nafarroa guztian, gure tamainako herrien artean, Leitza bakarria baitzen baldintza egokietan zegoen proiektzio gela, kultur-erakunde edota espazio eszenikorik ez zuena.

Herritarrekin eta eragileekin batera hainbat lanketa egin ziren: herripaperak buzoietan banatu, batzarrak, komunikabideetan agerraldiak, auzolanean ere bideo bat egin zen, eta kanpaina guzti horri amaiera emateko, Leitza egin den sinadura bilketa handienetarikoa bat gauzatu zen, 16 urtetik gorako 1.445 lagunek sinatu zutelarik egitasmo berri honen alde.

Babes guzti hori lortuta, udal ordezkariak Nafarroako Gobernua eta Parlamentuan finantzaketa eske hainbat bilerara egin zituzten. Horretaz gain, administrazio ezberdinek egindako diru-laguntza deialdietan parte hartu zuen Udalak.

Baita lortu ere: Parlamentuak aurrekontuetan onartutako partida berezi



Zine zaharreko azken ekitaldia

batzuen bidez, Nafarroako Gobernuak bi urtetan, guztira, 775.000 euroko diru-laguntza eman zion Leitzako Udalarari. Horretaz gain, beste diru-laguntza deialdi batzuen bidez, 125.000 euro gehiago lortu ziren (horietatik 100.000 euro Europako Batasunetik).

Proiektuak, guztira, 1.300.000 euroko aurrekontua izanik, ia % 70a diru-laguntzen bidez osatzea lortu zen, beraz (900.000 euro).

Beharrezkoa zen finantzaketa lortuta, proiektu berriari ekiteko prest zegoen Leitzako Udala.

LEITZAKO HERRI ARETOA

Zine zaharra eraberritzea baino gehiago da Leitzako Herri Aretoaren proiektua.

Leitza herri bizi-bizia da eta sorkuntza mota ezberdinei bide emateko erabilera anitzeko areto bat egitea izan da helburua. Hori horrela izan dadin, gaikoetako bat grada mugikorretan dago. Modu mekaniko eta erraz batean eserlekuak atera eta sartu ahalko direnez, espazio berean erabilera ezberdinetara egokitu ahalko den areto zabal bat izanen du herriak.

Hautapen publikoan aukeratutako izenak dioen moduan, aretoa herriarena eta herriarentzako dela nabarmendu nahi da. Honenbestez, eraikin honen

izaera publikoa dela eta, herriko eragile eta herritar guztien erabilerarako eskuragarri egotea nahi da, laster onartutako den erabilera ordenantza bidez araututa.

Leitzako Herri Aretoak, sortzaileentzako eskuragarri egonen den espazio publikoa izateaz gain, eskaintza propioa ere izango du. Udalak deialdi publiko bidez kontratatutako duen kultur teknikariak programazio propioa garatzeko arduratzen du eta Nafarroako Antzerki Sarean sartzeko eskaera bideratuko da (orain arte Leitzak ez zituen bertan egoteko baldintzak betetzen).

Honetaz gain, kongresuak, dantza ikastaroak, erakusketak, antzerki tailerrak, eta abar antolatzeko eraikina izanen da, ekipamendu aldetik guztiz egokitua egonen dena.

Aipatzekoa ere da efizientzia energetiko aldetik egindako apustua. Geotermiaz baliaturik eta isolamenduan egin den inbertsioari esker, eraikinak efizientzia energetikoan hobekuntza handia egingen du. Alegia, kontsumo baxuagoarekin, lehen baino erosoago egon ahalko da bertan.

Lanak iazko irailean hasi ziren eta urte amaiera honetarako bukatzea espero bazen ere, datorren apirilean martxan egotea espero da.

Leitzaketa mahai-jokoak 20 urte

Leitzaketa mahai-jokoa argitaratu zenetik 20 urte joan dira, 1999ko urte bukaeran argitaratu baitzen, hain zuzen ere. Mahai-joko bat, lau fitxa, dado bat, Leitzako ibilbidea kartoizko taulatxo batean, eta MILA GALDERA, guztiak ere Leitzari buruzkoak, lau koloretako multzotan banatuta: natura, geografia eta toponimia; Leitza gaur, Leitzako datuak; porrusalda eta kirolak; historia, herritarrak, instituzioak, euskara eta kultura.

Lan handia egin zen joko hura sortzeko. Eta ez bakarrik mila galdera eta zegozkien erantzunak sortzen eta idazten, baita horiek jasotzen zituzten fitxak banan-banan sailkatzen eta ordenatzen ere.

Lan handia egin zen eta, jakina, horrek bazuen helburu bat, edo helburu batzuk: denetan garrantzitsuen Leitza hobeki ezagutzeko bide bat ematea, denontzat balioko lukeena eta, gainera, entretenigarria eta atsegina izanena zena. Mila galdera eta mila erantzun, Leitza zer den eta zer izan zen hobeki jakiteko, herri gisa geure burua hobeki ezagutzeko.

Arrakasta handiko ekimena izan zen Leitzaketa hura. Herrian harrera oso ona izan zuen, eta makina bat lagun jarri zituen galdera/erantzun haien inguruan dantzan. Horren bitartez, neurri batean behintzat, helburua lortu zela pentsa dezakegu, ongi pasaz eta entretenituz gainera. Badakigu, gainera, ondoren beste herri batzuetan antzeko bidea hartu zutela eta antzeko mahai-jokoak egin zituztela.

20 urte pasata mahai-jokoa hautsak estaliko zuen akaso etxe askotan, beste batzuetan oraindik ere aterako da mahai gainera tarteka. Garaiak, formatuak eta euskarriak ere asko aldatu dira, baina norberaren herria ezagutzeko erronkak, interesak eta beharrak hor jarraitzen dute eta horri ere, modu batean edo bestean, eutsi egin beharko zaio.

